

Luis Valerio Aranguren Ymaz

- Valerio Josef Aranguren eta Juana Baupita Ymaz semea, 9 seme-alaba izan zituzten eta hau 8.a izan zen.
- ♦ Legazpin jaio zen 1818/06/21ean.
- ♦ Abaltzisketan hil zen 1900/02/09an.
- ♦ Juana Francisca de Tellería Zubillagarekin ezkondu zen lehenengo, 1845/VIII/26an, eta bi seme-alaba izan zituzten (garai hartan Usurbilen izan behar zuen maisu eta organista), Francisco Ygnacio eta Maria Cruz, baina hil egin zitzaion emaztea.
- ♦ Zumaiaiko M^a Dolores Ramona de Galdona Larrañagarekin ezkondu zen 1848/XII/21ean.
- ♦ Organista, maisua eta Udaleko idazkaria. Emaztea ere maistra zen.
- ♦ Bost seme-alaba: Frantzisko, ezkondu eta Buenos Airesa joan zen; 2 seme izan zituen, bat abokatua; han Conpañía Vinícola sortu zuten; Carlos Luxianoren aita; Benita, Gaintzako maistra (1874/01/17-1939/03/11); Pio, apaiza eta musikaria (obrak Eresbilen); Valeria (1871/01/28), Lapuebla de Labarcara ezkondu zen Angel Ataurirekin.
 - o Abaltzisketako Udaleko liburutetan, 1861 eta 1875 artean, honen sinadura azaltzen da idazkari bezala (3-1 eta 3-9 liburuak). Maisua ote zen ziurtatzeko, Usurbila eskatu zuten agiria, eta han, artxiboa erreta zegoelako, 3 biztanleren aitormena jaso eta bidali egin behar izan zuten. 1848an Usurbilgo maisu izendatu zuten (3-2).
 - o Abaltzisketako organoa Usurbildik erosteko bideak egin izango zituen nonbait.

Iturriak: Josefina; datak Seminarioan, Zumaiaiko mikrofilmean; organoaren erorketa Seminarioan, 1009/001-00.

Ponciano Zubeldia Goya

- Joaquín María Zubeldia Aguirre eta Josefa Ramona Goya Catarainen semea.
- Franciscoren eta Nicolasen anaia.
- 1877/11/19an jaio zen Abaltzisketan.
- 1941/12/10ean hil zen Zaldibian (64 urte).
- Ordiziako edo Beasaingo fraideetan egin zituen oinarritzko ikasketak eta musikakoak.
- Zaldibiako Udaleko idazkaria eta organista izan zen. Abaltzisketan ere organista izan zen 1901ean (500 erreal ordaindu zioten), (Seminarioa 1009/001-00).
- On puska bat omen zen, jende askori eman omen zion laguntza Zaldibian (horrela dio bere ilobak).

Nicolas Zubeldia Goya (Iturria: José Nicolas Benito)

- Joaquín María Zubeldia Aguirre eta Ramona Goya Catarainen semea.
- Poncianoren eta Franciscoren anaia, eta Gaintzako apaiza.
- 1890/12/12an jaio zen Abaltzisketan.

- 1954/12/18an hil zen Gaintzan.
- Musika ikasia.
- Gaintzan organoa edo harmoniuma jotzen zuen.
- Gaztetan Bizkaian egon zen eta gero Gaintzan.

Ignacio Zubeldia Olano

- Abaltzisketan jaioa 1917/07/31n.
 - Donostian hil zen 1982/01/02an.
 - Ordizian hasi zen ikasten eta Gasteizko seminarioan egin zen apaiz eta musikari.
 - Lehenengo, Nafarroako Galarretan eta Zaldudon egon zen apaiz, eta organista ere bai.
 - Gero, Andaluziara joan zen.
 - Han 19 urte egin ondoren, Iruña etorri zen, eta San Juan Bautista de La Salle parrokiako erretore izan zen.
 - Zaldudon Xolek hauspoa mugituta jotzen zuen organoa, oporretan joaten zirenean.
 - Onegia omen zen, eta asko sufritutakoa.
-
- **Carlos Joaquin Aranguren Galdona**
 - Abaltzisketan jaioa 1874/01/17an.
 - Abaltzisketan hila 1928/11/28an (54 urte).
 - Agerreko Joakina Maiz Dorronsororekin (1873/10/08 - 1942/07/26) ezkondua.
 - ◆ Abaltzisketako eta Orendaingo Udaletako idazkaria eta organista, 1909an hasi eta 1928 arte udaleko aktak izenpetzen zituen (Udala, 6-2; 7-1; 12-6).
 - ◆ Bost seme-alaba izan zituen: Zakarias, musika-ikasketarik gabea, baina belarriz jotzen zuen; Rufino, praktikantea eta kartujoa; Luis, postaria; Zoila, eta Luziano (organista).

Jose Maria Ormazabal Saralegui (Iñaki Ormazabalek emandako informazioa)

- Anoetan jaioa 1904/03/14an.
- Lazkaon hil zen 1991/01/05ean.
- Zizurkilgo Gloria Labayen Gurruchagarekin (1910/9/19) ezkondu zen.
- Hiru seme-alaba izan zituzten: Pello Mari, Iñaki eta Mari Arantxa.
- Arantzazun, frantziskotarretan, egon zen ikasten eta musika ere han ikasi zuen, Tomas Garbizurekin batera. Aita Arreguirekin eta beste batzuekin ikasi zuen musika.
- Soldadutza egiten zegoela (1925 inguruan), Anoetatik Albisturrera joaten zen, oinez eta soldadutzako arropak aldatu gabe, betarik ez zuelako, jaiero, harmoniuma jotzera, eta apaizarekin bapo bazkaldu ondoren itzultzen omen zen etxera.
- Irakasle-eskolako ikasketak egin zituen Iruñean; Plazaolako trenean joaten omen zen.

- Lehen izendapena, maisutzarako, Hernani izan zuen, 1927-28 ikasturtean, Zizurkilen egon zen beste urtebete, 1928-29 ikasturtean.
- 1929an, Abaltzisketara joan zen, Udaleko idazkari- eta organista-lanak egitera. Gaintzara ere joaten omen zen, batzuetan, organoa edo harmoniuma jotzera.
- 1939an, Amezketara joan zen, gerra amaitu eta berehala. Han Udaleko idazkari izan zen, orduan organista Juan Mari Imaz baitzegoen, baina oso lagunak omen ziren.
- 1942ko S. Luzia egunean, Segurara joan zen, Udaleko idazkari gisa. Han ere bazegoen organista, Julian Zunzunegui, baina Julian egon zen bitartean han ez zuen inork ere organoa ukitzen. Garai hartan meza kantatua ematen zen egunero Seguran, eta organistak, Joxe Marik eta Felix Alkorta aguazilak (meiñoak) kantatzen zuten. Mutiloako idazkari ere izan zen. Geroago, Lazkaoko idazkari plaza eskatu zuen (emazteak konbentzituta) eta eman ere eman zioten. Olaberrian ere ibili zen lanean eta Lazkaon jubilatuta zen.
- Orendaingo organista ere izan zen.
- Nahiz eta Lazkaoko organista “ofiziala” ez izan, urte askotako hileta gehienetan berak egin zuen lan hori, Donostiatik joanda.
- Iñaki semeak (1935/01/28) ere musika ikasi zuen: lehenengo, Juan Mari Imazekin Amezketan eta, gero, Saturrarango eta Gasteizko seminarioan. Lazkaoko fraideetan aritu zen organoa ikasten, baina horretarako klaustrotik pasatu behar zuenez, galarazi egin zioten. Iñakiren alaba ere musika-ikasketak egindakoa da, solfeoa eta pianoa.

Luziano Aranguren Maiz: (Iturria: Josefina)

- ◆ Abaltzisketan (Amu Txikin) jaioa 1914/05/28an.
- ◆ 1975/11/13an hil zen Alegian.
- ◆ Lehen ikasketak Ordizian, izeba maistrarekin.
- ◆ Maisutzarako ikasketak Iruñean egin zituen.
- ◆ Ultzaman, Zumarragan, Amezketan, Legorretan, Olaberrian, Ikaztegietan eta Alegian egon zen maisu.
- ◆ Abaltzisketako harmonium-jotzailea izan zen urte askotan.

Iturriak: Familiakoen informazioa.

Jesus Iguain Azurza (Iturria: Josetxo Zufiaurre, Eresbil, Eskoli)

- ◆ Beasainen jaio zen, 1928ko azaroaren 2an.
- ◆ Donostian hil zen 2005/01/28an.
- ◆ Pedro José Iguain eta Natalia Azurza senar-emazteak izandako zortzi seme-alaben arteko bigarrena zen.
- ◆ Hasierako ikasketak Beasaingo “San Martín de Loinaz” ikastetxean egin zituen. Iruñeko Salestarren ikastetxean inprimaketa ikasi zuen.
- ◆ Aldi berean, musikako ikasketak egin zituen aitarekin, Beasaingo Musika-Bandako zuzendaria eta Beasaingo parrokiako organista baitzen.

- ◆ Bere senideek Argentinara joateko erabakia hartu zutenean, han aitarekin bi anaia bizi baitziren, soldadutzara boluntario joan zen Iruñera, atzerrira joan ahal izateko.
- ◆ 1949ko azaroan, senide gehienak joan ziren Argentinara.
- ◆ Urtebete beranduago, Jesús Argentinara joan zen eta berarekin eraman zituen pianoa eta etxeko hainbat tresna.
- ◆ Bost urtez, inprimategi batean eta senitartekoek zuten kafetegi-gozotegi batean lan egin zuen.
- ◆ Gero, merkataritza-ontzi batean nabigatu zuen hiru urtez.
- ◆ 1958-1959 inguruan Beasaina itzuli zen, eta 1988 urtera arte, hau da, jubilatu zen arte, egin zuen lan bertan.
- ◆ 1965. urtean, Eskoli Echeverriarekin ezkondu zen. Beasainen eta Donostian bizi ondoren, Abaltzisketako Aranguren baserrian kokatu zuten behin-betiko bizitokia.
- ◆ Abaltzisketako Parrokiako eta Larraizko Ermitako organista izan zen 15 urtez.
- ◆ Orendainen ere jotzen zuen.
- ◆ 1989-2004 urteetan, parrokia hauetan egiten ziren erritoen barruan zeuden 77 kantentzako organorako konponketak idatzi zituen.
- ◆ Jesús Iguain Azurza, 2005eko urtarrilaren 28an, 76 urte zituenean, hil zen Donostian. Bere nahia horixe zelako, Abaltzisketako hilerrian lurperatu zuten.

Musika erlijioso herrikoia korurako ahots batera eta organora egokitua

Agur Jesusen Ama	Eguberri	Jaunari kanta
Aintza	Erri agurtza	Jesus maitea zan
Aintza zeruan	Erruki utsa	Jesus munduko argia
Alleluia	Eruki utsa	Kanta dezagun
Alleluia	Ez egon Jauna	Kanta Jaunari
Alleluia	Ezka desagun	Kanta zagu guztiok
Ama maite Maria	Ezkariak	Kristo gure errege
Atera gaitzazu	Ezkerrik asko Jauna	Kristorekin
Atoz pekataria	Garizuma	Nere ama txit laztana
Aurtxo txikia	Giza arrantzalea	O biotz gozo
Azken afari	Gloria gloria	Ogi zerutik
Azken agurra	Goazen elkaturik	Ona bildots ezia
Bedeinkatua zu	Gure Aita	Or zaude Jesus
Beti betiko	Gurekin egon	Or zaude Jesus
Biotz batez	Igandetan elizan	Osanna
Damudet Jauna	Jainko gizon	Ostian bizizera
Ebajelioa	Jauna dut artzai	Pakearen abestia
Egile on	Jaunaren itza	Piztu da Kristo
	Jaunaren pakea	Prefazioa

Iturria: Eresbil

Juan Bautista Ezeizabarrena Ermina

- ◆ Alegian jaio zen 1929/08/30ean.
- ◆ Azpeitian hil zen 1998/11/02an.
- ◆ Seminarioan ikasia, musika ere bai.
- ◆ 1954an apaiz egin ondoren, Abaltzisketan egon zen urtebete inguru. Ondoren, Gaintzara joan zen urte pare baterako. Sigüenzako seminaria bidali zuten latina irakastera. Handik Azpeitira etorri zen.
- ◆ Abaltzisketan harmoniuma jotzen zuen, izugarrizko gustuarekin eta gozatuz. Gaintzan haurrei solfeoa irakasten zien; organista-lana egiten Gaintzan bakarrik aritu zen.
- ◆ Abaltzisketan egon zen apaiz, urtebetez, eta gero Gaintzara bidali zuten. Gaintzan egon zenean, Araman gregorianoz kantatzen zutela eta, meza berri bat ikasarazi omen zion herriari (Mikel Idiazabal).